

# Bezeroarekiko harremanak

Bezeroek gurekin kontaktuan egoteko, web gunean enpresaren korreoa eta telefono zenbakia eskuragarri izango dute. Aplikazioa akatsen bat baldin badu gurekin kontaktuan jarri beharko dira. Web orrian bezeroak dituen kezkak argitzeko atal bat agertuko da.

Web gunea egunero izango da eguneratua, informazio berriak zintzilikatu egingo dira.

Gure produktua jende gehiago edo askok erabiltzeko hainbat ekitaldi mota egingo ditugu.

Lehenengo ekitaldia prestatzeko guk kontratatutako enpresarekin hitz egingo dugu bien artean zozketa bat antolatzeko. Zozketa, autobus enpresa horretan ibiltzeko urte bateko bonoa izango da. Zozketa, gabonetan izango da, gure produktua duten autobusetan ibiltzen diren pertsonak bakarrik hartuko dute parte zozketan, hau da, hilabete batean (abenduan) gurekin antolatu duten autobus enpresen autobusetan ibiltzen diren pertsonak hartuko dute parte.

Ekitaldi edo jarduera honekin bi gauza nagusi lortuko ditugu, lehenengoa biztanleria gure aplikazioa hau da bus top aplikazioa erabiltzen asiko direla eta bigarrena geroz eta pertsona gehiagok guk kontratatutako bus enpresa horien autobusak erabiliko dituztela.

Beste jarduera edo ekitaldi bat hitzaldi bat izango da Garberan (Donostian), hitzaldi hori abenduak 29an izango da, eta horrela zozketaren saria eman ondoren, aplikazioaren hitzaldi bat emango dugu, gure produktuaren ezaugarri eta erabilgarritasun guztiak azalduz.

Horrela zozketarengatik datozen pertsonak hitzaldia ikustera behartutak egongo dira eta hitzaldia pertsona gehiagok ikusiko dute.

Hitzaldian gure app-a aurkeztu ondoren gure produktuaren proba bat egingo dugu, gurekin lan egin duen autobus enpresa baten autobus batean gure gps-etako bat jarriz eta pantaila handi batean erakutsiz, horrela pertsona askok ikusiko dute nola funtzionatzen duen.

Hitzaldi bukaeran instagramean igotako enquesta erantzuteko esango diego, horrela gure proiektua beste begi batzuetatik ikusteko, eta hanbat beste gauza hobetu behar badira hobetzeko.